

AITZINA

Editorea: Fermin Munarritz. Koordinatzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behe. 31001 Iruñea. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329. E-mail: aitzina@nafarkobi.net

NORANTZA

SIMON ZUBIRI

bai&by-ko ZUZENDARIA

«Euskaraz ikasteko sistema aditua erabiltzen lehenak gara»

Informatikak ematen dituen aukerak aprobetxatuz, euskaraz irakasteko sistema aditua erabiltzen den bakarra da bai&by. Denbora libre laburra dutenek edo klaseko erritmoa jarraitu ezin dutenek dagoeneko ez dute aitzakiarik euskaraz ez ikasteko.

lu eramangarria edukita, ordu horietan euskaraz ikas dezake. Badugu bideo digitala ere, hogei joku didaktiko, sei ebulaketa eta abar. Horrekin guztiarekin ikasleak oinarri sendoa hartzea nahi dugu, horretarako, ikasle bakoitzaren beharrak kontuan hartzen ditugu eta horren arabera ikas zuten da gure erantzuna.

Guk ikasle bakoitzaren datuak hartzen ditugu, azterketa bat egiteko, eta, horretarako, diagnosi sistema bat erabiltzen dugu.

gu. Azterketa horren ondorioz dakigu ikasle horren erritmoa, zertan moldatzen den hobeto eta zertan okerrago, eta, hori dena jakin ondoren, egiten diogu berarentzako plangintza.

Zenbat zentrotan jarri da martxan sistema hau?

Iaz Bilbon, Arrasate eta Oñatin hasi ginen, eta aurtan Iruñean eta Donostian ireki ditugu zentroak. Iaz 1.500 ikasle izan genuen eta aurtan 2.000 instea da gure helburua.

Zentro batzuetan badaukazue urte beteko esperientzia. Zein ikasle mota apuntatzen da euskaraz sistema adituaren bidez ikasteko?

Uztailcan bai&by-n gauden guztiak egin genuen balantze bat eta ikasleei buruzko ondorio batzuk atera genituen. Adibidez, ikasleek oso serio hartzen dituzte ikasketak, oro har oso formalak dira, gogoz ikasten du. Beste batzuek aukera zuten liberazioa hartzeko, baina sistema adituaren bidez ikastea erabaki dute, eta guretzat hori pozgarria da oso.

Datorren kurtsorako asmo berririk duzue?

Orain, urrian, EGA ordenagailuz prestatzeko programa berria aterako dugu eta datorren urtean on line irakaslea jarri nahi dugu martxan. Ezin dugu geldirik geratu, aurrera jo behar dugu urtero.

BEQOÑA SIMON

Nondik atera da halako programak aurrera eramateko ideia?

Duela hamar urte hasi ginen lanean hizkuntzak irakasten, eta esperientziak esan digu pertsona batzuek, edozein arazoirengatik, beti galtzen dutela klaseko erritmoa. Bai taldeak eramatean duena beren erritmoa ez delako bai klaseak gaitzen dituztelako. Pertsona horiei erantzuna emateko prestatu ditugu programa hauek.

Zein eskaintza berezi egiten dio ikasle bati Bai&by-k?

Alde batetik, irakasle birtuala eskaintzen dugu. Ikasleak, ordenagailuarean aurrean esertzen denean, bere irakaslea edukiko du, eta irakasle horrek markatuko dizkio opeak, akatsak, lanak eta abar. Bestalde, Teleikaskuntza dugu, eta, honen bidez, nahi duen jendeak bere etxera eramaten du euskaraz ikasteko programa. Eman dezagun pertsona bat aireportuan denbora luzea galduta egoten ohi dela, bada, ordenagai-



Movika dt. Valt



Txillardegi

Gerla sailindua

Arroz inbaditzaileak uxatzen, «gudura deia» esaten bide zuten gure arabesok.

Islam-darrek, berriz, «Jihad» diote. «Gerla sailindurako deia», alegia. Eta egun hauetan, berriro ere. Txetxeniarrak «Jihad» aldarrikatu dute Moskuren aurka. Islamdar alde hauek osofama txarra dute gure artean. Hemen horrelakorik sekula ez gertatu ez baltiz bezala. Bago hant.

Maskhadov-ek kalkulu egokia egin du, ordea, gure uestez. Errepublikak Askatuen Federazioan (URSS ohian, alegia) sei daude islamdarrek: Kazakhstan, Kirghizia, Tadjikistan, Uzbekistan, Turkmenia eta Azerbaijan. Orotara 70 bat miloi biztanle, agintean dagoen erriar gurtziengoa barne.

Jendez handienak hauek dira: Uzbekistan (21,3 miloi), eta Kazakhstan (16,7 miloi). Islamdar mundu hori mogitzen hasten bada, gorrak erusiko ditu Mosku. Gainera Irusar Federazioaren barruan bertan (Errusia teoriar Estatu Askatuetako bat besterik ez da) islamdar asko dago: Kaukasoa batez ere. Txetxenia eta Inghuetia , batekik, 1.300.000 biztanle; eta Daghestan bestetik, 1.823.000. Biok Ipar Kaukasoa, Sovietar Batasunean «Errepublikak Autonomo» izanak. Eta musulman sunita suntsuak.

Maskhadov-ek aukozkie hauek ditu gogoa, eta Jeltsin-ek ez gutxiago. Kaukasoaen konkista hartamatu joan den mendeko kontua da (1800 - 1860). Kaukasiarrak ez dira erusiarrak, ez dira erusiarez mintzo, eta ez dute Errusian egon nahi. Baietz esatea kezaren imperialismoa be-deinkatzea eta bermatzea besterik ez da.

Aitzindariak

LEZO URREIZTIETA

1907-1981



826 IRAULTZAILE PASATU DITU BERTZE ALPERA, 1934EKO GREBA ZANPAKATUAREN IHESAN...

«ELAN, JAGIN eta kontrabandean leproano nabilen sartu. Yik: Don Genaro, Sanhutzimo 374293K, debaratu zidan kontrabandoa karabineroekin egitea bekatu zela eta...»

EUXKO JAURLARITZAK EMAN PRESENTEA ARBUIATU DU, ETA GORAKI:

LEHENDAKARI!
NIK EZ DUT OFARIRIK NAHI E?
ETA EZKUTITXO HONEKIN GUTXIAGO!!
HAU EZ BAITA ZAZPIAK BAT!!!

GERLAN MILIOIKA KARTUTXO, FUSIL KOSTAKO BATERIA, BAI ETA JANARIA TONAKA ERE BILBORAINO EKARRIA DA, FASISTEN BLOKATZEA URKATUZ...

...Independentziara joateko biderik larregiola esaten men nik gerta denboran...»

«GUDARI» ONITZA ARMATURIK DAUKA BAIANAN ZEINAK EUSKADI ASKATURA ERAMANEN BAITTU EUSKALDUNAK, TIRANIA OROTIK URRUN...

XEDE HORI BURUTZKO GARDENAS MEXIKOKO PRESIDENTEAREN BERTAIN UNARTE JAKIN BAT NEGOTIATZEN ARI IZAN DA.

AIZINA + MARTIN